

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren "kalitatea" azpimarratu du haren 50. urteurrenean

*Espainian bakarra den organoak toki-erakundeen akordioen aurkako 7.344 helegite ebatzi zituen iaz, eta haren ebazpenen % 1,39an soilik jo zen epailearengana*

Martes, 08 de abril de 2014

[Nafarroako Administrazio Auzitegiak](#) (NAA) bere sorreraren 50. urteurrena ospatu du gaur, asteartea, Iruñean egin den jardunaldi tekniko batekin. Bertan organo berezi horren atzera begirako ikuspegia eman da, Espainiako beste eskualdetan antzekorik ez dago, eta haren helburu nagusia Foru Komunitateko toki-erakundeek ekintzak eta hartutako akordioak berrikustea da.



Barcina Lehendakariak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren jardunaldia inauguratu du.

Programa Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak inauguratu du, eta hark egindako [agerraldian](#) administrazio-auzitegiak hartutako erabakien "kalitatea" azpimarratu du. NAAk emandako 7.041 ebazpenetatik, 98tan bakarrik jo zen epailearengana, hau da, % 1,39. Gainera, auzitegiek urte horretan zehar atzera botatuko ebazpenen portzentajea % 0,57koa izan zen soilik (40 ebazpen).

Alde horretatik, Yolanda Barcinak baieztatu du "ezin dugula esan NAAren lanak atzera egin duela eta hark hartutako ebazpenen kalitateak behera egin duela". Iaz, guztira gorako 4.821 errekurtsio berri erregistratu ziren toki-erakundeek egindako ekintza eta hartutako akordioek aurka eta organoak guztira 7.344 helegite ebatzi zituen (batzuk 2013aren aurretik aurkeztutakoak).

## Jardunaldia

Batez ere izaera teknikoaren duen [programaren](#) barnean dozena erdi txosten eta mahai-inguru bat sartzen dira, eta NAAren bilakaera historiko-juridikoaren atzera begirako ikuspegia eskaintzea du xede, egungo bere errealitatearen irudi bat aurkeztea eta lotura profesionala duen hainbat arlo juridikok hari buruz duten pertzepzioa ezagutzera ematea.

Irekiaren ondoren, bertan izan dira ere Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrás eta NAAren lehendakari Gabriel Casajús, organoaren iraganean, gaurkotasunean eta etorkizunean sakondu da, hark izaera berezian, toki-erakundeek hari buruz zer ikuspegi duten, gorako errekurtsioaren irudian eta NAAk udalerrien funtzionamenduan duen eraginean.

Azkenik, mahai-inguru batean NAAk Nafarroako beste zenbait organo eta erakunderekin duen harremana aztertu da, esate baterako, Arartekoarekin, Comptos Ganberarekin, Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiarekin eta Nafarroako Gobernuarekin.

### Nafarroako Administrazio Auzitegia

1964an sortu zen NAA Espainiako antolamendu juridikoaren barnean dagoen organo berezia da. Nafarroako toki-erakundearen ekintza eta hartutako akordioaren aurka ezarritako gorako errekurtsioak ebazteaz arduratzen da bereziki. Doan aurka-egiteko bide bat da, borondatezkoa, eta epailearengana jo aurretiko administrazio-bidearen azken instantzia.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikita dago organikoki, baina bertako kideek beren eginbeharrak Foru Komunitateko gainerako erakundeetatik at betetzen dituzte. Bederatzi kidek eta idazkari batek osatzen dute, hiru ataletan antolatzen da eta haietako bakoitza hiru kidek osatzen dute.



Nafarroako Administrazio Auzitegiaren jardunaldira bertaratutako pertsonak.